

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak ezintasun handiko enpleguak kontratatzeko laguntzari eutsiko dio enplegu-zentro berezietan

1,28 milioi euro jarriko du langile horien lan-kostuaren % 75 diruz laguntzeko, Espainiako gainerako lekuetan indarrean dagoen laguntzaren % 50aren aurrean

Miércoles, 19 de septiembre de 2012

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartu du 2012 an irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro bereziei finantzatzen jarraitzea – hamaika guztira– ezintasun handiko langileen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75ri dagozkion lan-kostuak: 400 pertsona inguru garuneko paralsiarekin, buruko gaitzarekin edo adimen-urritasunarekin % 33ko edo handiagoko maila batean, edo ezintasun fisikoarekin edo zentzumen-ezintasunarekin % 65 edo gehiagoko mailarekin.



Noainen dagoen Tasubinsaren industria-garbitegi berria

Gobernuak erabaki hori hartu du –1.279.700 euroko gastu gehigarria ekarriko duena– Estatuak pertsona horien LGSren % 75ean laguntza emateko beharra kendu ondoren, 2009an ezarri zuen moduan eta hurrengo urteetan luzatu zuen moduan. Era horretan, enplegu-zentro guztiek jaso behar dute lanaldi osoz eta Gizarte Segurantzaren alta emandako ezintasuna duten beren langileen LGSren % 50, maila eta mota alde batera utziz, [estatuko araudiak](#) dioenaren arabera.

Nafarroa da laguntza osatzeko erabakia hartu duen autonomia erkidego bakarra, Europako Gizarte Funtzak % 50ean kofinantzatuko duena eta atzeraeraginezko ondorioak izango dituen (2012 guztiko LGSren % 75 estaliko du). Gobernuak onartu egin du, duten ezintasun-motagatik eta ezintasun-maila handiagatik enplegu-maila murriztuta geratzen zaien kolektiboen lanpostuei eusteko

Neurri horien zentro onuradunak izango dira: Tasubinsa, Aspace, Elkarkide, Nafarroako DYA, Adisco, Albernía, Amimet, Ferimax, Bidean fundazioa, Gupost eta Nasermo.

Enplegu-zentro berezientzako laguntzak

Guztira, Nafarroako Gobernuak 11,66 milioi euro jarriko ditu Foru

Komunitatean dauden [17 enplegu-zentro berezi](#)entzat (irabazi-asmoa dutenak edo ez dutenak). Zentro horietan ezintasunen bat duten 1.300 pertsonak egiten dute lan. LGSaren % 25eko gehigarria ordaintzeko gaur onartutako 1,28 milioi euro horiei beste [5,4 milioi euro](#) gehitu behar zaizkio, martxoan baimendu zirenak Estatuko araudiak ezarritako LGSren % 50a osorik finantzatzeko. Halaber, Foru Administrazioak enpresa-kuotaren % 100 ordaintzen dio Gizarte Segurantzari.

Gehigarri modura, Nafarroako Gobernuak irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro berezien edo laguntza-unitateen aurrekontua orekatzen laguntzen du (guztira, 1,3 milioi euro).

Gainera, aurten aurreikusten du 3,8 milioi euroko balioa duten kontratuak esleitzea –kontratu publiko guztien % 22,58a eta lizitazioko kopuru guztiaren % 3,29a– irabazi-asmorik gabeko enplegu-zentro bereziei (CEE) eta [gizarteratzeko eta laneratzeko zentro](#)ei (CIS). Era horretan, [Kontratu Publikoen Foru Lege](#)aren 9. artikulua aplikazioan aurrera egiten da, Nafarroako administrazio publikoetako kontratuen % 6ko nahitaezko erreserba-portzentaje bat ezartzen duena mota horretako erakundeentzat, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [aurreratu](#) zuenez [Nafarroako Enplegu Zentro Berezien Elkartek \(ACEDMNA\)](#) antolatutako ekitaldi baten irekieran.